

3-4

Arantzazu Araia

18 Kms

El que vive con intensidad en unos momentos se eleva con velocidad sorprendente a un grado tal de virtud que el perezoso no alcanza después de muchos años.

Etapas 3

Harrera-Tokiak

Datu Interesgarriak

Ignazioaren arrastoak

Iruizkinak

Etapas 3

Arantzazuko Amabirjina agurtu eta bertatik abiatzen den bidea, seinale gorri eta zuriak dituen, hartuko dugu. Santutegia eskuinera izango dugu, eta azken etxeetaraino jarraitzen duen errepidea jarraituz utziko dugu atzera. Urbirako bidearen seinaleei jarraituko diegu. Beti aurrera eta gorantz jarraituko dugu. Hiru bideko bidegurutze batera iritsiko gara, iturri bat hurbil duena. Erdiko bidea hartuko dugu (Urbiarako igoera markatzen duen seinalea), beste biak utzita. Aurrerago, pista zabal eta itzaldun batetik minutu batzuk ibili ondoren, Erroiti iturrira ailegatzen gara, Amabirjina Rodrigo Baltzategi artzainari agertu zitzaioneko puntua, legendaren arabera.

Bidea sigi-sagan doa Elorrola lepora bidean. Beti Bide Nagusiko seinale gorri eta zurien bidetik. Mendatera iritsi eta pozik hartzen dugu jaitsierako bidea. Urbiako Andra Mariren Ermitara (1924) iritsiko gara, ezkerrera geldituko zaiguna, gu goazen mendi bidearen ondoan, eta Urbiako aterpera iritsiko gara. Aterpeko tabernan freskagarri on bat har dezakegu uda garaian.

Mendi-bidetik jarraituko dugu, aldendu gabe; bidea ongi markatuta dago eta

zabala da. Aurrerago, larretan artzainen aterpe batzuen artean pasatzen gara. Pixka bat aurrerago, Zorrotzarriko monolitoaren ondotik pasako gara, eta horren ondoan ia, Perusaroi mendiko aterpea. Beti aurrera, beherantz doan lurrezko bidetik joan behar da, berriro gora hasteko. Hemen bi aukera ditugu: mendi-bidetik jarraitu eta Araiarantza abiatu edo ezkerretik sartu, basorako bidexka jarraitu eta zutoinek adierazten duten bidea hartu Araiarantz. Basoko bidea ona da oinez doazen erromesentzako. Lehenengo linea-elektrikoetara garamatza eta geroxeago, baso ederrak zeharkatuz, ardi artegietara heltzen gara eta zuzenean Araiako herrira jaisten gara. Heldu baino lehen, herriko igerilekuetarako bidexka har dezakegu.

Mendi- bide zabaletik aurrera egiten badugu beti, Done Jakue bideko zutoin hori batzuk aurkituko ditugu, baina hauek ez dute Araia era eramanen, Zalduondora baizik. Zalantzarik gabe bide zabala, hobe da bizikletentzat.

Zumarraundi izeneko lautada txiki batera iritsiko gara. Eskuinera, bide asfaltatu bat hasten da, hortik Araia iritsiko gara (bi kilometrotara ezkerraldean oharra dago: “Araia 4km GR-25” baina ez da hori hartzea gomendatzen, bira handia egin behar baita). Beherantz goazela, urtegi batera iritsiko gara: kontuz hemen, hurrengo bidegurutzean ezkerreko bidea hartu behar baitugu, errepidea utzita. Eskuinera utziko dugu Gartzabal baserria. Errepide asfaltatuari jarraituz, Araian sartuko gara, igerilekuak dauden gunen ingurutik pasa ondoren. Goazen bidean aurrera jarraituz, elizara eta udaletxera iritsiko gara.

Harrera-Tokiak

ALBENIZ

Refugio casa de la Iglesia . Tel: 945 261 676 (en la etapa siguiente, para grupos de más de 10 peregrinos)

ARAI

Korta-Albergue de peregrinos. C/ Andra Mari, 23, <https://acortar.link/japVMT>

Udaletxea Tel: 945 304 006 / 945 314 566.

Hotel Andamur San Roman ** . 2 Araiako km, San Roman errepidetik. Tel.: 945 31

47 83

Taxi Berasategui . Tel: 699 445 403

EGUINO

Casa de Oración Haiztur . (fuera del Camino a unos 5 km de Araia) San Esteban Kalea, 1. Tel: 945 31 46 37 e-mail: mercedariase@yahoo.es

IBARGUREN

Landetxea Legaire Etxea . C/San Martín, 2. Tel: 626 895 798. (Bidetik kanpo, ez oso urrun)

SAN ROMÁN

Hotel Andamur . (en la etapa siguiente, Polígono Okiturri) Carretera N-I, Tel: 945 314 783

Pensión El Ventorro . Al otro lado de la gasolinera Andamur. Tel: 945 304 372.

ZALDUONDO

Casa rural Aizkomendi . Errotalde Kalea, 5 Tel:679 908 531

Casa rural Arkauzetxea . C/ Errotalde, 5 Tel: 679 908 531

Casa rural Eikolara, Barrio Arbinatea, 8 Tel: 945 386 898 // 629 407 767

Datu Interesgarriak

Etapla gogorra gaurkoa, Arantzazutik gora igoera gogorra izan dugulako eta baita gero jaitsiera ere, aldapatsua izan baita Araiara iristeko. Aizkorri-Aratz mendizerraren parkean gaude, hemen baitaude Kantauro eta Mediterraneo isuriak bereizten dituzten mendirik garaienak (Aitxuri 1.551 m). Eguraldi baldintzekin kontu izan. Behe-lainorik ez badago, bidea pista zabaletatik igarotzen da, tarte batean ezik (mendatearen inguruan, 1.180 m-ra), bide-zidorra hartxintzarrez prestatua baitago (oso baldintza onetan, behe-lainoarekin eta ikusteko moduan) eta hain zuzen biderik zabalenak zuzen aurrera jarraitzen duen puntuan. Kilometro bat edo bi aurrerago, berriro arreta jarri behar dugu: pista utziko dugu, bailarara jaisten baita nabarmen, bidexka ez oso garbi eta belartsu batetik jarraitzeko, San Adriango tuneletik datorren Donejakue Bidearekin bat egiteko aukera emanez. Donejakue Bidea hartuta, bere gezi horiak jarraituko ditugu,

Zalduondo edo Araiako bidegurutzera eramango gaituena (igerilekuak eta herria). Gu Araiara goaz, ezkerreko bidetik.

ARAI: Asparrena udalerriko herrigune nagusia da, elkarren artean hurbil dauden 10 herrixka biltzen baitira bertan. 1.500 biztanle pasarekin, Arai da udalerri honetako zerbitzuen gunea. Udaletxea barroko estilokoa da, Asparrena Anaidiko armarriarekin. San Pedro eliza XV. mendekoa da, eta erretaula neoklasikoa du barruan. Herri honetan jatetxea, supermerkatua, botika eta banketxea ditugu.

Adi: datorren etapa Aldan amaituko da eta han ez dago ez dendarik ez jatetxerik, beraz, hurrengo egunerako jatekoa eraman beharra dago.

Ignazioaren arrastoak

Oharpenak: Prestamen-otoitzaren garrantzia azpimarratzen jarraitzen dugu eta hori hausnartzen denbora hartzea komeni da. Gogora dezagun Ignaziok esaten digula gehiago asetzen duela “gauzak barrenean sentitu eta gozatzeak” asko jakiteak baino, eta beraz ez dugu presarik izan behar. Gaur gure Sustraiaren eta Oinarriaren inguruan begiratu behar dugu, gizon-emakumeok zein Xedetarako izan garen eginak. Ikuspegi globala izatea ezinbestekoa da, aurrerago zehazteko.

Eskaria: Jauna, zure Maitasuna nire bizitzan sentitzeko grazia eman diezadazun nahi nuke, eskerrak emateko ekintza sakon baten bidez. Lagun iezadazu Jauna, nire bizitzaren oinarria zure nahiaren arabera aurkitzen.

Gogoetak: Gure bizitza osoa bidaia espirituala izan dela gogoratzen hasiko gara. Bidean goazela, denbora bat hartuko dugu gure historia gogoratzeko, hau da, otoitzaren bidez bidaiatzen utziko diogu gure adimenari. Gogoratuko ditugu eta Jainkoari utziko diogu gure iraganeko une gakoak erakuts diezazkigun, era guztietako argazki-albuma, mingarriak batzuek, alaiak besteak: gure bizitzako une honetara ekarri gaituen historia da. Nor naiz ni? Nola iritsi naiz puntu honetara nire bizitzan? Zein pertsona, leku edo unek izan dute eragin garrantzitsua, eta lagundu dute, ni orain naizen hau moldatzen? Bidelagun izan ditzagula azaleratzen diren irudi hauek, eskerronezko edo saminezko sentimenduekin batera.

Seguru asko, une ederrekin batera izango dira lotsa sentimenduak ekartzen dizkiguten pertsonak edo bizitzako alderdiren batzuk, ahaztu nahi ditugun uneak

eta inola ere uste ez dugunak Jainkoak onar ditzakeenik. Aurkez diezazkiogun Jainkoari une horiek, geure burua onartzeko bidean hazten lagun diezagun. Ez dugu geure buruarekin erabat adiskidetuta sentitzeko edo gaur dena “konponduta” utzi beharrik sentitu behar: gaur azaleratutako jendea, uneak eta sentimenduak, hazi gerta daitezke Jainkoarekin egingo dugun gure bidean, gure erromesaldia garatzen goazen heinean. “Gure bizitza osoa Jainkoari aurkezteko” prozesua ari gara bizitzen, eta horrek alaitasunez eta eskerronez betetzen gaitu, baina damuz eta lotsaz ere bete gaitzake. Bilatzen ditugun fruituak, eskerrona, ulermena eta norbere buruaren onarpena dira, eta baita Jainkoak onartuak garela ulertzea ere. Pentsa dezagun geuregan «urrea garbitzen» ari bagina bezala, datozkigun ideia guztien artean gure bizitza iragaziz, «urrea» bakarrik gelditu arte, gehiago ikas dezakegun edo geu hazi gaitzkeen bizitzako alderdiak, Jainkoak gogoeta egiteko gidatzen gaituen egoerak ere aurkituz

Testuak:

Oseas 11,1-9. Niganako Haren maitasuna samurtasunez beterik dago.

139. salmoa, 1-14.17-18. Beldurrez eta miresmenez gogoratzen dut, nola Jainkoak zaindu izan nauen une alai eta mingarrietan, arrakasta eta porrot garaian, leialtasun garaian eta baita desleiala izan naizenean ere.

Gogojardunak, 5: «Gogojardunak hartzen ari denari on handia egiten dio haiei ekiteak bere Egile eta Jaunarekiko adore handiz eta esku zabal-zabalez, bere nahimen eta askatasun osoa eskainiz, Jainko handia balia dadin bai haren pertsonaz, bai daukan guztiaz, bere borondate txit santuaren arabera».

Azken hizketatxoa: Otoitzean hausnartutakoaren lapurpena egin, Jesusekin, lagun batek beste batekin hitz egiten duen bezala hitz eginez. Egindako bidezatzian aurkitutako puntuez hitz egin berarekin.

Iruzkinak

Leave a Reply

Your email address will not be published. Required fields are marked *

Comment *

Name *

Email *

Website

Δ

Bizikletaz egiteko zaila

igotzerakoan bizikletari bultza beharra dago. Gainera, ez dago argi Parke Naturaletik bizikletaz igarotzerik dagoen, motordun ibilgailuekin igarotzerik ez baitago.

Oinez doanentzat, neguan oso kontuz ibili beharreko tokia da eta elurra egindakoan ez joatea hobe da.

Bi aukera daude deskribapenenan adierazten den bezala:

Arantzazu: Km 0.

Refugio de Urbia: Km 5.

Araia: Km 16,3 (basoko bidetik)

Arantzazu: 0 km.

Urbiako Aterpea: 5 km.

Zumarraundi lautada: 11,5 km.

Araia: 17,7 km. (bide zabaletik)

Bidea

Etapa eskema



Altimetria



Araian denbora


[bidea ikustea wikiloc](http://bidea.ikustea.wikiloc.com)

[gps-a deskargatzea](#)


[MapOut deskargatzea](#)

Galeria

Etapako Argazkiak
























[aurreko etapa](#)

[hurrengo etapa](#)